

ZTE MF30 MiFi-AREN KONFIGURAZIOA



Ondoren, urratsez urrats esplikatuko dizugu nola konfiguratu MiFi-a.

1. **MIFI-A PRESTATZEA**

- Ireki bateriaren tapa, eta sartu SIM txartela, kaxako eskuliburuan zehaztu bezala.
- Bateria jarri aurretik, idatziz jaso WiFi sarearen izena (WiFi SSID) eta pasahitza (Password); bateriaren kompartimentuaren etiketan agertzen dira.
- Sartu bateria, jarri tapa eskuliburuan adierazi bezala, eta piztu MiFi-a, alboko pizteko botoia erabilita.

2. **MIFI-AREN KONFIGURAZIOA**

- WiFi konexioa duen edozein gailutatik (ordenagailua, tableta...) konektatu behar duzu MiFi-ra. Horretarako, erabili zure gailuko WiFi aplikazio estandarra, eskuragarri dauden haririk gabeko sareak bilatzeko. Hautatu etiketan agertzen zen sarearekin (lehen idatzi duzunarekin (WiFi SSID)) bat datorrena, eta, pasahitza eskatzen dizunean, sartu etiketan bertan agertzen zena.
- WiFi sarera konektatu ondoren, ireki web-nabigatzale bat, eta sartu MiFi-aren konfigurazio-orrian: <http://192.168.0.1>. Saioa hasteko, administratzaile-pasahitza sartu behar dugu sistemara sartzeko (lehenespenez, admin)
- SIM txartelaren PINa sartu behar duzu. Administrazio-orrian sartu orduko, PINa sartzeko leihoa bistaratuko da. MiFi-a pizten den bakoitzean egin beharko da hori.

The screenshot shows the ZTE MF30 Web GUI interface. The title bar reads "Internet Móvil Ajuste de WebGUI". On the left, there's a vertical menu bar with options: Configuración Rápida, Conexión WAN, SMS, Agenda, Tarjeta microSD, and Ajustes. The main content area is titled "PIN" and "Verificar PIN". It has a text input field for "PIN" containing "*****" and a message "Oportunidades restantes:3". At the bottom right of this section is a "Aplicar" button.

- Interneteko konexioa gaitu behar duzu **Conexión Wan** menu-aukerara sartuta. **Conexión Automática** aukera hautatu behar duzu, eta **Aplicar** sakatu. Pauso hori behin bakarrik eman behar da; ez da errepikatu behar MiFi-a pizten den bakoitzean.

The screenshot shows the ZTE MF30 Web GUI interface. The title bar reads "Internet Móvil Ajuste de WebGUI". On the left, there's a vertical menu bar with options: Configuración Rápida, Conexión WAN, SMS, Agenda, Tarjeta microSD, and Ajustes. The main content area is titled "Conexión WAN". It has a section "Modo de conexión PPP" with three radio button options: "Conexión Automática" (selected), "Conexión Manual" (with a dropdown menu showing "Conectar al Internet"), and "Por demanda". Below this is a table with two rows: "Estado de la conexión PPP" (Desconectado) and an empty row. At the bottom right of this section is a "Aplicar" button.